



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/04/24

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek "Konfiantzazko karguen" izendapenen barri batzordean "modu puntualean" emoteko eskatu deutsie Aldundiari**

Aldundiak, hemendik aurrera egiten diran "konfiantzazko karguen" izendapenen barri emon beharko dau batzordean. Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kulturako batzordeak EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen arauz besteko proposamena onetsi dau gaur arratsaldean, informazio hori "modu puntualean" emon daiten, izendapen horreek "Aldundia titular dan edo kudeaketa organuetan parte hartzen dauen erakundeetan" egiten diranean.

Foru Gobernua eusten daben talde bien ekimena, Podemos Bizkaia taldeak beste bat aurkeztu ostean erregistrau zan. Talde morearen lehenengo proposamenean "lehiaketa publikoa" zabaltzea eskatzen zan "Museo-erakundeetako edo partaidetza publikoa daukientetako zuzendariak" kontratatetako. Idea hori, Andoni Aldekoa Euskalduna Jauregiko Zuzendari Nagusiaren eta Miguel Zugaza Bilboko Arte Ederren Museoko Zuzendari Nagusiaren izendapenen barri izan ostean planteau eban Podemos taldeak.

Jeltzaleen eta sozialisten eretxiz, Podemosek "faltsoan" zabaldu dau eztabaidea, izan be, euren ustez, talde horrek, bere ekimenean, "ez ditualako bereizten goi zuzendaritzako izendapenak, hau da, konfiantzazko karguak, eta Aldundiaren esku dagon sektore publikoa osatzen daben erakundeetako lan taldeak osatzen dituen beharginak". Azken horreen kasuan, bi taldeen eretxiz, Aldundiak "goitik behera beteten ditu gardentasunaren, konkurrentziaren eta aukera bardintasunaren inguruko erespideak".

Bere ekimenaren defentsan Podemos Bizkaiak, zuzendaritza taldeetako kideak izendatzeko orduan Arte Guneetako Jardunbide Onen Kodea errespetetea eskatu deutse erakundeei. Kode hori 2007an sinatu zan Kultura Ministerioaren eta sektoreko hainbat alkarteren artean, eta bertan adierazoten danez, Museo-erakundeetako zuzendaritza postuak lehiaketa prozedureari jarraituz izendatu behar dira. Estaduan, arte plastikoen arloko "hamahiru" alkarte eta erakunde eta "437 norbanako", kritiko agertu dira Pradoko Museoaren zuzendari ohia kontratatetako aukeratu dan prozedureagaz, Bilbon dagon Museoaren patronatura bialdu jakon gutun baten adierazo dabenez.

Jeltzaleek eta sozialistek defendidu egin dabe Zugaza Arte Ederren Museoko Zuzendari Nagusi moduan kontratau izana. PSE-EEko Josu Montalbáñen eretxiz, bere izendapena "zuzena eta hobetu ezina", eta "ez dau zalantzarik sortzen", durangarraren ibilpide profesionala kontuan izanda. Jane Eyre Urkietak (EAJ-PNV) defendidu egin dau kargu hori "konfiantzazkoa" izatea, eta Podemos taldea kritikatu dau, Jokaerarako Kodea erabilten dauelako. Dokumentu hori "ez da arauemoilea", eta "aholkuak" baino ez ditu emoten.

Azkenean, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen proposamena onartu da, talde bi horreen eta talde mistoaren aldeko botoakaz eta EH Bildu eta Podemos taldeen abstentzinoagaz, eta talde



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

morearen ekimena ez da onartu, koalizino abertzalearen aldeko botoa eta gainerako guztien kontrakoa jaso ditualako.

**ITSASADAR MUSEOAK MAIATZEAN BUKATUKO DITU "ANTXUSTEGI"  
ITSASONTZIA ESTALTZEKO BEHARRAK**

Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako foru diputatua talde mistoak eskatutako agerraldian etorri da batzordera, eta esan dau Bilboko Itsasadarreko kai sikuan dagon "Antxustegi" itsasontzia museoak berak zaharbarrituko dauela, "jendearentzat zabalik" dagozan erriberako arotzeriaren inguruko tailerren bitartez.

Egurrezko itsasontzia berreskuratzeko aukeratu ziran hiru aurre-proposamenetatik, Museoko patronatuak museoak bertako teknikariek egindako plana hautatu dau. Hainbat fasetan banatutako egutegia planteau da. Lehenengoa itsasontzia finkatzea –behar hori urtarrilean bukatu zan– eta itsasontzi osoa estaltzea izan da. Azken hori "maiatzean zehar" bukatuko da.

Aurretik egin behar diran lan horreek bukatu ostean, Bilbaok adierazo dauenez, etorkizunean bisitau ahal izateko, itsasontzia "nabetegako egoeran" jarteko egin beharko dan berreregitea "luzea" izango da. Jarduketarako azkenengo plana, itsasontzia estaltzeko beharrak bukatu ostean onartuko da, eta "gehienez zortzi urte" luzatuko dan barriztatze prozesua marrazten dau. Aurton, Aldundiak "50.000 euro" jarriko ditu, eta Eusko Jaurlaritzak beste horrenbeste jarteko konpromisoa erakutsi dau. Diru-kopuru horren parte bat itsasontzia estaltzeko lanak ordaintzeko erabiliko da, behar horren kostua "60.000 eurokoa" izango da eta.

**GUGGENHEIM MUSEOTIK "LIBRE" GERATU DIRAN MILIOI BAT EURO "BESTE  
KULTUR PROIEKTU" BATZUETARAKO**

Talde Mistoak eskatu dauen beste agerraldi batean Bilbaok adierazo dauenez, Eusko Jaurlaritzak Guggenheim Museoaren Aurrekonturako egingo dauen ekarpen barriari esker, Aldundiak "milioi bat euro" erreserbauko ditu "beste kultur proiektu batzuetarako".

Ez dago oraindino guztiz "itxita" diru hori zertarako erabiliko dan, baina foru diputatuak kopuru batzuk aurreratu gura izan ditu: "285.000 euro" Bizkaiko Ondareagaz erlazioautako proiektuetara bideratuko dira; "465.000 euro" lurraldeko arte eszenikoetara eta kultur egiturara zuzenduko dira; eta "250.000 euro" aisiara eta kulturara. Azken atal horretan, Euskal Museorako "200.000 euroko" ekarpena eta Itsasadar Museoak "Antxustegi" itsasontzia berreskuratzeko jasoko dituan "50.000 euroak" azpimarratu gura izan ditu Bilbaok.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
24/04/2017

## **Las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación a informar "puntualmente" en comisión de los nombramientos de "cargos de confianza"**

La Diputación deberá informar en comisión de los nombramientos de “cargos de confianza” que se produzcan en el futuro. La comisión de Euskera y Cultura de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado esta tarde una proposición no de norma de PNV y PSE-EE para que esta información sea trasladada “puntualmente” cuando estos nombramientos se produzcan “en aquellos organismos en los que –la Diputación- es titular o participa en sus órganos de gestión”.

La iniciativa de los dos grupos que sustentan al Gobierno foral fue registrada después de que Podemos Bizkaia presentara otra en la que pedía abrir un “concurso público” para la contratación de “directores de las instituciones museísticas o con participación pública”. Esta idea fue planteada por la formación morada tras conocer los nombramientos del Director General del Palacio Euskalduna, Andoni Aldekoa, y del Director General del Museo de Bellas Artes de Bilbao, Miguel Zugaza.

A juicio de nacionalistas y socialistas, Podemos ha abierto un debate “en falso”, ya que consideran que esta formación, en su iniciativa “no distinguía entre nombramientos de alta dirección, y por tanto cargos de confianza, y personal laboral que conforma las plantillas de las diferentes organizaciones que conforman el sector público foral”. Para estos últimos casos, ambas formaciones creen que la Diputación “cumple con los criterios de transparencia, concurrencia e igualdad de oportunidades”.

En la defensa de su iniciativa, Podemos Bizkaia ha pedido a las instituciones que se respete el Código de Buenas Prácticas en Centros de Arte a la hora de abordar nombramientos de directivos. Dicho Código fue firmado en 2007 entre el Ministerio de Cultura y distintas asociaciones del sector, y contempla que los puestos de dirección en las instituciones museísticas deban ser designados por el procedimiento de concurso. En el Estado, “trece” asociaciones y organizaciones profesionales de las artes plásticas y “437 particulares”, han sido “críticos” con el procedimiento elegido para contratar al exdirector del Museo del Prado, mediante una carta enviada al patronato del centro bilbaíno.

Socialistas y nacionalistas han defendido la contratación de Zugaza al frente del Bellas Artes. Para Josu Montalbán, del PSE-EE, su nombramiento es “acertado e inmejorable” y “no admite dudas” teniendo en cuenta la trayectoria profesional del durangués. Jane Eyre Urkieta (PNV) ha defendido que este cargo sea “de confianza” y ha criticado por parte de Podemos de la utilización del Código de Conducta que es un documento “no normativo” que ofrece “recomendaciones”.

Finalmente, la propuesta de PNV y PSE-EE ha sido aprobada con los votos a favor de los representantes de estos dos grupos más el representante del grupo mixto y la abstención de EH Bildu y Podemos, mientras que la iniciativa de la formación morada ha decaído tras recibir únicamente el apoyo de la coalición abertzale, y el voto contrario del resto.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## EL MUSEO MARÍTIMO TERMINARÁ EL CUBRIMIENTO DEL "ANTXUSTEGI" EN MAYO

La diputada foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, en una comparecencia solicitada por el grupo Mixto, ha informado de que el barco "Antxustegi", ubicado en el muelle seco del Museo Marítimo Ría de Bilbao, será restaurado por el propio museo mediante unos talleres sobre carpintería de ribera que serán "abiertos al público".

De las tres propuestas seleccionadas para la recuperación del barco de madera, el patronato del Museo ha elegido finalmente el plan elaborado por los técnicos del propio museo, quienes han planteado un calendario dividido en varias fases. La primera ha sido el apuntalamiento de la embarcación-concluida en enero- y el cubrimiento de todo el barco que estará finalizado "a lo largo del mes de mayo".

Tras concluir estos trabajos previos, Bilbao ha señalado que la reconstrucción del barco a su "estado de navegación" para futuras visitas será "largo". El plan de actuación final, que se aprobará tras terminar las labores de cubrición, dibuja un proceso de rehabilitación para "un máximo de ocho años". Este año, la Diputación pondrá "50.000 euros" y el Gobierno Vasco se ha comprometido a aportar otro tanto. Parte de este montante servirá para pagar la cubrición del barco cuyo coste será de "60.000 euros".

## UN MILLÓN DE EUROS "LIBERADO" DEL GUGGENHEIM PARA "OTROS PROYECTOS CULTURALES"

En otra comparecencia solicitada también por el grupo Mixto, Bilbao ha asegurado que, gracias a la nueva aportación que realizará el Gobierno vasco para el Presupuesto del Museo Guggenheim, la Diputación reservará "un millón de euros" para "otros proyectos culturales".

No está "cerrado" aún el destino final pero la diputada foral ha querido adelantar algunas cifras: "285.000" se destinarán a proyectos ligados al Patrimonio de Bizkaia; "465.000 euros", se llevarán las artes escénicas y el tejido cultural del territorio; y "250.000 euros", el ocio y cultura. En este último apartado, Bilbao ha destacado la inclusión de una aportación de "200.000 euros" para el Museo Vasco y los "50.000 euros" que recibirá el Museo Marítimo para la recuperación del "Antxustegi".